

FRANTZIAKO TOURRETIK AT. Aitor Osa Portugalen ari da korritzen. ibanesto.com taldearekin, Tourra egitea pentsatua bazuen ere. Itziarkoa ez da gustura egoerarekin, eta 2002. urteari begira, esku artean dituen eskaintza guztiak aztertzeke prest dago.

Aitor Osa minduta da ibanesto.comek Tourreko taldetik kanpo utzi eta gero

Benito Romero ordezkariaren hitzetan, ibanesto.com taldeak ez du hartutako erabakiaren zergatia argitu

Andoni Urbistondo | DONOSTIA

Aitor Osa txirrindularia egon nahi lukeen lekutik urruti da, oso urruti. Dunkerquen (Frantzia), Tourreko abiapuntuan behar luke egon gaur, baina Osa anaia zaharrena Portugalen da, lasterketa batean. Eusebio Unzuek, ibanesto.com taldeko kirol zuzendariak, egutegiko lasterketa entzutetsuenean ariko diren bederatzi txirrindularien behin betiko zerrendatik at utzi du Aitor Osa.

Itziarko txirrindularia minduta dago erabaki horrekin, Tourra korrituko zuela pentsatzen baitzuen. EGUNKARIA Osa anaiei Benito Romero ordezkariarekin mintzatu zen atzo, eta Aitorren haserrea baieztatu eta azaldu zigun: «Ustekabea izan da Tourreko bederatzikotik kanpo geratzea, itxuraz Tourreko taldean zegoelako, baina Aitor haserre da taldetik kanpo geratzeko arrazoiak argitu ez dizkiotelako», esan digu Romerok.

Aitor Osaren asmoa Tourra korritzea zen sasoi hasieran, baina oster, Giroan aritu behar zutenen talderako hautatu zuen Unzuek. Giroa hasi aurretik gaixotu egin zen, sasoi puntua galdu zuen eta ez zen garaiz osatu Giroa korritzeko. Tourra prestatzen hasi zen orduan Aitor, gogotsu. «Kataluniako Voltan izan da, eta Voltan aritzen direnak, Tourra korritzen dute normalean», dio Romerok. Zalantzak uxatzeko bidean, ordezkariak ibanesto.com taldeko Jesus Hoyos medikuarekin hitz egin zuen orain 10 egun, eta hark, «Aitor Tourreko taldean zegoela esan zidan. Ez zen ziurtasun osoz mintzatu, baina baieztatu ziurra zirudien, baina azkenean kanpoan geratu da».

Romeroren esanetan, «ez dakigu zergatik utzi duten kanpoan Aitor. Eusebio Unzuere deitu nion, eta sasoi hasieran Girorako talde bat eta Tourrerako beste bat zuela esan zidan, eta ez da hortik mugitu. Aitor gaixotu egin zen Giroa baino



PABLO S. QUIZA

Aitor Osa itziartarra, Euskal Herriko Itzuliko kronoigoeran, Azkoitian, iaz.

lehenago, baino ez du hori aintzat hartu».

Aitor Osa eskaintzak entzuteko prest da

Ibanesto.comen jokaera ez da zuzena izan Romeroren ahotan: «Tourreko taldean sartzeko asmorik ez bada, hobe bi hilabete lehenago esatea, eta ez prestakuntza osoa burutu eta gero». Ordezkariak dioenez,

«jarrera horiekin zalantzak sortzen dira taldeak Aitor Osarenganako duen konfiantzarekin».

Ibanesto.com taldean Aitorri bere dohainak erakusteko aukerarik eman ez izanagatik ere kexu agertu da Romero. «Beti zernahitarako erabili dute, besteentzat lan egiteko ardura izan du gehienetan. Ezin izan du barruan duen guztia erakutsi», dio. «Karrerista bakoitzak hala-

ko marka bat du profesionalentzat, eta Aitorrek txirrindulari langilearen marka du, baina Aitor langile ona baino askoz gehiago da, karrerista ona da».

Osa anaiei ibanesto.com taldearekin duten kontratua urte bukaeran amaitzen zaie, eta egoera ikusita, 2002. denboraldiari begira lanean da jada Benito Romero. «Interesa agertu diguten taldeak badira, eta las-

ESANAK

BENITO ROMERO

(Osa anaiei ordezkaria)

«Aitor Tourreko taldean zegoela esan zidan ibanesto.comeko Jesus Hoyos medikuak; gero kanpoan geratu da»

«Tourreko taldean sartzeko asmorik ez bada, egokiena prestakuntza osoa egin aurretik esatea da»

«Besteentzat lan egiteko ardura izan du gehienetan Aitorrek. Ezin izan du barruan duen guztia erakutsi»

«Prest gaude talde guztiei entzuteko eta beraiekin hitz egiteko»

ter hasiko gara hizketan. Talde batzuk badira, atzerrikoak ere bai. Ibanesto.com berak ere interesa du. Nik Unzuere galdetu nion zer iritzi zuten, eta Osa anaiei kontratua berritzeko interesa zutela esan zidan». Romerok kazeta honi adierazita-koaren arabera, «gu prest gaude talde guztiei entzuteko eta beraiekin hitz egiteko. Ateak ez dizkiogu inori ixten».

Ibanesto.com taldean jarraitu edo ez, Aitor eta Unai, Unai eta Aitor, elkarrekin ariko dira heldu den urtean ere. «Biak batera joango dira doazen lekura, beraiek hala erabakita. Baldintza hori derrigor bete behar da», azaldu du Romerok. Osatarrek ez dute lehentasunik finkatu, baina «baldintza ekonomikoak bezainbeste garrantzi izango dute kirol baldintzek, eskaintzen zaien egutegiak, alegia».